

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako kartel iragarlearen 2025. urteko deialdia. BDNS (Identif.): 835271.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/835271>)

Jakitera ematen da onartu egin dela, 2025eko maiatzaren 20ko 2025/2620 zenbakidun Alkatetza Dekretuz, Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako kartel iragarlearen lehiaketaren 2025. urteko deialdia. Beraz, jendaurrean jarri da, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

Lehenengoa. — Xedea

2025eko Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzea

Bigarrena. — Eskatzaileak

Pertsona fisikoak.

Hirugarrena. — Lehiaketaren saria

Sari bakarra egongo da, 600 euro-koa

Sariaren zenbatekoari legez ezarritako atxikipen fiskala aplikatuko zaio.

Laugarrena. — Lanak aurkezteko epea

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 2025eko uztailaren 18ra arte (14:00).

Bosgarrena. — Lanak aurkezteko modua

Bermeoko Udalaren egoitza elektronikoan:

<https://egoitza.bermeokoudala.eus/>

Berhaz: Ertzilla 6-8.

Ordutegia:

— Astelehenetik ostiralera: 08:00-14:30.

Seigarrena. — Aurkeztu beharreko dokumentazioa

IN-292/02-24 agiria.

Zazpigarrena. — Kartel finalisten artean herritarrek bozkatzeko epea

2025eko uztailaren 28tik (08:00etan) 30era arte (14:00etan).

Zortzigarrena. — Lan irabazlea jakinarazteko eguna

2025eko abuztuaren 1a.

Bederatzigarrena. — Helburuak, balorazio irizpideak eta prozedura

Informazio hau 2025eko maiatzaren 14an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako kartel iragarlearen lehiaketaren oinarrietan agertzen da.

Bermeon, 2025eko maiatzaren 27an. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly